

# B

BARREN

TOKIKOM

# Etxerako lanak ezbaian



# 2014 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

**Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu**



**Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu 943 744 112 edo 943 743 704 zenbakira edo idatzi [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com) helbidera.**



Iñigo Lariz

Aspaldian izan diren olatu handien indarra somatu dugu azken asteetan gure kostaldean.

Egunkari eta telebistako berrie-maileei esker denok ikasi dugu zer den olatuen periodoa eta honek zer eragin daukan hauek kostaldearen aurka talka egitean duten indarrarekin. Baita olatu handiak itsasgorarekin batera baldin badatoz hondamendi handiagoa jasango dugula kostaldeko herrietan. Baina izan da oraingoan ere horrelako klima ekitaldiei etekina ateratzen jakin duenenik ere. Arrisku kiroletan aritzen direnei buruz ari naiz hain zuzen ere. Surfariak ikusi ditugu Igeldo parean olatu erraldoietan barrena, euren taulen laguntza hutsarekin. Urumea ibaian kayak surfean kilometroetan zehar olatuekin jolasean aritu denik ere izan da edo iparralderen dagoen euskal kostaldean oso gutxitan sortzen den Belharra olatu mitikoa surfeatu duenik ere.

### “Surfariak ikusi ditugu Igeldo parean olatu erraldoietan, euren taulen laguntza hutsarekin”

Gutxitan suertatzen diren balditzetan muturreko kirolen zaleek beraien abilezia proban jartzeko aukera izaten dute berriki. Oraingo honetan itsasoak eman die aukera, baina bada aukera horretaz baliatzea eragozten saiatu denik ere. Izan ere, gizartearen segurtasuna bermatzea helburu duten hainbat erakundek isunak jarri omen dizkiete horrelakoetan ibili izan direnei, haiek egin duten gauza bakarra euren gustuko aisaldi kirolean parte hartzea izan denean. Arriskutsuak dira ekintzok, ez dago hori ezbaian jartzetik, baina arriskuaren mugak non diren zehaztea, horiek onartu eta ondorioetat arduratzea norberari dagokiola pentsatzen dut. Ez al duzu uste, Ainhoa?



Ainhoa Lendinez

Olatu-talka ederra, Iñil! 2013-2014ko negua bi fenomeno meteorologikorekin gordeko dut betiko gogoan: elurra eta itsasoa. Elurra orain arte nire bizitzan sartu gabe zegoelako. Itsasoa, berriz, lan-tresna izan zaidalako. Zazpi bat denborale izan ditugu azken neguan, historikoa euskal kostaldean. Azkenurreko denboralean izan zen surfariarena, ezta?

Donostian izandako olatutzarren irudi ikusgarriak iritsi zitzaizkigun erredakziora. Atzera eta aurrera pasatzen ari nintzen irudiak, "onenaren" bila. Eta bat-batean atentzioa eman zidan plano aurkitu nuen. Santa Klara uhartearen eta Haizearen Orraziaren artean, olatu erraldoi bat altxatu zen. Puntu beltz bat zeukan magalean. Surfaria zen. Olatua mendi garai bat zen; surfaria, berriz, mendizale handinahi bat. Gailurrean zegoela, maisuki tentetu eta beherako bideari ekin zion, gandorrean iristaka. Olatuarekin dantzan zegoen, baina erronka ere jotzen ari zitzaion, eta izeka oldartuta erantzun zion itsasoak. Ordura arteko oreka galdu eta itsasoan galdu zen surfaria, zenbait segundoan ametsaz gozatu ostean. Irudi haiek zeresan handia eman zuten gerora. Ametsa bete zuten kirolari handia zen batzuentzat. Burua amildegira bota zuen eroa besteentzat.

### “Surflaria erreskatatzeko baliabideak izango balira, nork ordainduko luke gastua?”

Surflaria erreskatatzeko baliabideak izango balira, nork ordainduko luke gastua? Mendi zurietan elur-jausiak harrapatzen dituen mendizaleez oroitu nintzen. Nork erabakitzen du istripu bat arduragabekeriak eragin duen? Noiz bihurtzen da heroia ero? Zenbat buru, hainbat aburu. Horiek baino alferreko gastu askoz gehiago daudela uste dut nik, garestiagoak eta bidegabeagoak. Hala ere, ezerk ez du bizitzak adina balio. Horregatik, kaskoa buruan eta ibili munduan. Kasakoak lagunduko digulako ametsik zoroenak egi bihurtzen.



**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behe  
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 749 570

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak ezarriak  
Lantadura eguztiko, PVC  
Pintura orokorra





# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikei Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50 ANIBIA  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA


elgoibar  
biZi-bizirik



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Poltsa hartu zuenarentzako oharra

Aurreko asteko asteartean, hilak 11, Elgoibarko Aita Agirre plazako aparkatokia, gaueko 22:00ak inguruan kotxea kargatzen ari nintzela, alboko kotxearen gupil ondoan laga nuen alabaren aulkiko poltsa eta han ahaztu nuen. 20 minutura konturatu nintzen, eta bertaratu nintzenean, ordurako norbaitek hartua zuen.

Poltsan umearen gauzez aparte, argazki kamara bat eta eguzkitako betaurrekoak zeuden.

Hartu zuenak bueltatzeko asmorik ez duela ematen du, Udaltzaingoan abisua emanda dagoelako eta oraindik ez dutelako ezer ere laga.

Hala ere, hartu zuenak, lerro hauek irakurtzen baditu (oraindik esperantza txiki-txiki bat badaukat), mesedez eskatzen diot kamarak zeukan memoria txartela bueltatzeko. Uste dut asko ez diodala eskatzen... eta guretzako memoria txartelean zeuden argazki eta bideoek sekulako balore sentimentala dute. Hartu zuenak aurpegia eman beharrik ez dezan, memoria txartela helbide honetara bidaltzea eskatzen diot, Julen Hernandezen izenean: Plaza Altzibar nº3-4, ezkerrean, 20720 Azkoitia.

Besterik gabe agurtzen naiz, hartu zuenak mezu hau irakurriko duen esperantzarekin.

Agur bat.

Julen Hernandez ☺

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Otsailean...

**JAIOTAKOAK**



**Lur Elizburu Azpiazu**  
Otsailak 3  
Ion eta Bidatz



**Jare Idoeta Ormaetxea**  
Otsailak 18  
Jon eta Saioa



**Ibai Muruamendiaraz**  
**Elorza** Otsailak 19  
Gorka eta Eider



**Ekain Gisasola**  
**Olaskoaga** Otsailak 26  
Asier eta Elisabeth



**Haizea Sanz Gomez**  
Otsailak 27  
Iraide eta Aritz



**Paul Mekolalde**  
**De La Cruz** Otsailak 3  
Yon eta Nerea

**Aimar Blanco Gantxegi**  
Otsailak 7  
Alvaro eta Eneritz

**Izaro Postigo Lopez**  
Otsailak 13  
Borja eta Maria Elena

**Lala Urkidi Jimenez**  
Otsailak 15  
Oihana eta Egoitz

**Nikole Zabaleta Otaegi**  
Otsailak 18  
Patxi eta Mireia

**HILDAKOAK**

- Raquel Alvarez Tercero • 60 urte • Otsailak 2  
 Felisa Abalos Tornes • 86 urte • Otsailak 2  
 Idoia Laka Lizaso • 38 urte • Otsailak 3  
 Jose Gurrutxaga Lizarralde • 95 urte • Otsailak 6  
 Alfredo Monreal Saracho • 82 urte • Otsailak 6  
 Benito Marin Perez • 82 urte • Otsailak 9  
 Jose Romero Matamoros • 78 urte • Otsailak 9  
 Pedro Arrillaga Garate • 96 urte • Otsailak 10  
 Felisa Zabaleta Elortza • 93 urte • Otsailak 11  
 Agustin Oñederra Irureta • 86 urte • Otsailak 16  
 Pako Iriondo Lizarralde • 87 urte • Otsailak 15  
 Amaia Arrizabalaga Arakistain • 44 urte • Otsailak 18  
 Bittor Alberdi Elorza 'Patxillo' • 51 urte • Otsailak 18  
 Juan Mella Lavandeira • 89 urte • Otsailak 24  
 Julia Zendoia Aramendi • 87 urte • Otsailak 26  
 Jesus De Castro Perez • 56 urte • Otsailak 27

**ETXEBERRIA**

**Hileta zerbitzua OSOA  
eta 24 ORDUKOA**

**TANATORIOA**



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

**Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR**

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea  
 nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira  
 943 744 112 telefonora edo bidali e-postaz  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) helbide elektronikora.

## Motxaila Eguna ospatu zuten Mendaron zapatuan

Aitzbeltz kobazuloan hasi zituzten ospakizunak eta 65 lagun elkartu ziren herri bazkarian

Urtero legez Aitzbeltz kobazuloaren bueltan hasi zituzten zapatuan Mendaron Motxaila Egune-ko ospakizunak. 30 bat lagun elkartu ziren han, tartean maketa grabatzera etorritako Plu de mechanize (gelditu mekanizazioa) musika talde bizkaitarrekoak. XVII-XVIII. mendeko baso-langile emakumezkoek hasitako borrokari zor die izena talde honek, eta Bordelen eman zuten estreinako kontzertua, jar-



dunaldi feminista batzuen barruan. Musikari bizkaitarren saioaren ostean, Alain Ulazia mendarorak sarrera antzeko bat egin zien han bildutakoei, eta poesia errezitaldi labur baten ostean, Gartxot Fidalgo eta Mikel Tellabide herrikideek gitarra hartu, kantu bana jo eta kantuan jarri zituzten leizera bildutakoak. Aitzbeltzetik Gaztetxerako bidea hartu zuten gero guztiek, bazkaltzera.

65 lagun baino gehiago elkartu ziren bazkaltzen, eta Azkoititik eta Iruñeritik etorritako bi gazteren txalaparta saioaz, Motxaila Band taldekoek inprobisatutako musika saioaz eta Alaia Martin, Unai Gaztelumendi eta Jokin Uranga bertso-larien bertsoez gozatzeko aukera izan zuten han. Gauean, berriz, arratsaldeko poteoaren ostean, erromeria izan zuten.

### Gaztelekukoak Eguneko Zentroan izan ziren inauterietan



Belaunaldi desberdinen artean elkarrengaitzeko proiektuaren barruan, Eguneko Zentroan izan ziren Gaztelekuko kideak inauterietan. Besteak beste, moztortzeko maskarak egin zituzten gazteek adinekoekin, eta batzuek besteengandik ikasi zuten. Esperientziak elkartrukatu, ezagutzak transmititu eta denbora konpartitu zuten,.



## Ekimena **Gure Esku Dago**

Gure Esku Dago ekimenak informazio mahaia jarriko du gaur arratsaldean, Kalegoen plazan. Erabakitze eskubideari eta ekainaren 8an egingo duten giza kateari buruzko informazioa emateaz gain, metroak, kamisetak eta bestelako materiala jarriko dituzte salgai, 17:00etatik aurrera.

Bihar, bestalde, Gure Esku Dago ekimenarekin bat egiten duten herritarrak batu nahi dituzte argazki batean. 13:00etan bilduko dira Kalegoen plazan argazkia ateratzeko, eta ahalik eta jende gehiena batu nahi dute. Beraz, herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira.

## Berbia **‘Elgoibar Ekinean’**

Ekintzailetasuna sustatzeko asmoz, *Elgoibar Ekinean* tailerra antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Debegesak elkarlanean. Egitasmo honekin autoenplegua sustatu nahi dute Elgoibarren, ideia berrien sorrera bultzatu eta ekiteko pausoak eskaini. Tailerra guztiz doakoa da, eta Debegesako teknikari profesionalek eskainiko dute. Martxoaren 24an hasiko da ikastaroa, eta sei saio izango dira guztira: martxoak 24, 25, 28, 31 eta apirilak 2 eta 4, 9:30etik 13:30era, Elgoibarko Kultur Etxean. Ekintzaileei lan mundurako bidea erakustea eta ideia bat daukatenetik martxan jartzeko prozesuan beharrezkoak dituzten tresnak eta ezagutza euren esku jartzea izango da ikastaroaren helburua.

Ekimen hau iaz egin zuten lehendabiziko aldiz, eta emaitza “onak” eman zituela ikusirik, errepikatzea erabaki dute antolatzaileek. Iaz bederatzik lagunek parte hartu zuten, denak lan-gabeak, eta hiru proiektu edo negozio-idea sortu ziren. Debegesaren laguntzarekin garapen prozesuan daude ideia horiek.

Parte hartu nahi dutenek 943 820 110 telefonora deitu (Vanesa Hortas) edo [ekintzaile@debegesa.com](mailto:ekintzaile@debegesa.com) helbidera idatzi dezaketek.

## Irudia **Txankakoako errotonda**



Bukatu dituzte Txankakoako errotondako lanak, eta dagoeneko erabiltzeko prest dago. Trafiko handia pilatzen zen une jakin batzuetan, eta arazo handiak sortzen zirenez, errotonda biribila egiteko eskaera egin zieten Udaleko arduradunek Gipuzkoako Foru Aldundiari. 75.793,49 euroko aurrekontua izan du obrak.

## Lanbide Heziketari buruzko tailer dinamikoak

Elgoibarko Udalak Lanbide Heziketari buruzko jardunaldiak antolatu ditu bosgarren urtez, eta ekitaldi horien barruan, tailer dinamikoak egingo dituzte Ikastolako, Herri Eskolako eta Institutuko ikasleekin. Martxoaren 24an eta 25ean Elgoibar Ikastolako DBH4. mailako ikasleekin egingo dute lanketa; hilaren 26an, 27an eta 28an Herri Eskolako txanda izango da. Lanbide Heziketaren gaineko topiko eta estereotipoei buruz hausnartuko dute, eta ondoren, Mecanizados Novak enpresa bisitatuko dute, enpresa mundua bertatik bertara eza-gutzeko. Meka, IMH eta Manahmana enpresako kideek hartuko dute parte jardunaldi horietan. Apirilaren 10ean eta 11n, bestalde, Institutuko Batxilergoko lehenengo mailako ikasleentzako saioak egingo dituzte. Kasu honetan Lanbide Heziketa ez sexistari buruzko tailer dinamikoak landuko dituzte, Murgibe enpresaren laguntzarekin.

## Castro Urdialesera irteera apirilaren 3an

Zaharren Biltokiak Castro Urdialesera irteera antolatu du apirilaren 3rako. 8:15ean irtengo da autobusa Kalegoen plazatik, eta iluntzean itzuliko dira. Goizean Laredon egingo dute geldialdia La Casona bisitatzeko eta han gosalduko dute. Ondoren, Castro Urdialeserantz abiatuko dira, eta herria bisitatzeko aukera izango dute. Bazkalostean hartuko dute itzulerako bidea, eta arratsaldea Bilbon pasatuko dute. Interesatuak Zaharren Biltokian bertan eman behar dute izena.

## San Bartolome jaietarako proposamenak

Elgoibarko Udala hasi da San Bartolome jaiak prestatzen, eta herritarren ekarpenak jaso nahi ditu. Proposamenak Kultura Sailera bidali behar dira, martxoaren 30erako. Telefonoz 943 742 158 zenbakira deituta edo [kultura@elgoibar.net](mailto:kultura@elgoibar.net) helbidera idatzita egin daitezke proposamenak.

## Erretratu zaharra

**1914**

Aste honetako erretratu zaharrak Imanol Mendikutek laga dizkigu. 1914-1915. urte ingurukoak dira argazki hauek, orain dela ehun bat urtekoak, hain zuzen ere. Lehen Mundu Gerrak eztanda egin zuen urte haietan eta mundua sutan zegoen, baina Elgoibarren, Zuhaitzaren Festa ospatu zuten. Aita Agirre plazan egin zuten ospakizuna, eta herriko agintari guztiek hartu zuten parte. Agintariez gain, herritar asko batu ziren Zuhaitz Eguna ospatzeko. Ikusi dezakegun bezala, beraz, gaur egun ezagutzen dugun Zuhaitz Eguna ez da atzo goizeko kontua. Aste honetan bertan ospatu dute Elgoibarko ikastetxeetako umeei Zuhaitz Eguna, eta Morkaikok antolatuta, Zuhaitz Egun berezia egin zuten joan zen zapatuan, Sargoaten.

Zuhaitz Egunak mende oso bat bete duela kontuan hartuta, ekitaldi bereko bi argazki argitaratzea erabaki dugu. Goiko argazkian ekitaldian parte hartu zuen jendetza ikusten da, eta behekoan agintari guztiak ageri dira. Jarraian dituzue horien izenak.


**Ezkerretik eskumara:** Ignacio Bezeziartua (Organo jotzailea eta Udal Musika Bandako zuzendaria), bi apaiz, ezezaguna, Jose Azurmendi parrokoa, Esteban Unzueta (Lazaro Unzuetairen aita), Ceferino Urrestarazu parrokoa, Roke Agirre, Manuel Quintana Basterra (1902-1903, 1914-1915 eta 1936an alkate izan zen, eta 1924-1930 urte bitartean, Primo de Riveraren sasoiari, Comisión Municipal Permanenteko kidea), Julian Zubelzu abadea (Santa Klarako kapellaua), Antonio Arrillaga medikua (1918-1920 eta 1924-1930 urteetan alkate), Arturo Pertegaz notarioa, Juan Aizpiri, Gerardo Uribe (1910-1911 alkate), Pedro Mari Arrillaga (1904-1905, eta 1914an alkate. Urte hartan hil zela uste da), ezezaguna, Leoncio Unzueta eta Eugenio Arrien aguazila.











# DANELE SARRIUGARTE

IDAZLEA

Joan zen astean aurkeztu zuen Danele Sarriugarte elgoibartarrak 'Erraiak' liburua. 'Mamuak' aurreproiektuarekin irabazi zuen Igartza Saria, eta horren harira etorri da Daneleren lehenengo eleberria. Itzulpengintzan lizentziatua da, eta Elearazi itzulpen blogaren kudeatzailea ere bada, duela bi urtetik. Gaur egun literatura alorreko master bat egiten dihardu Bartzelonan.

**“Bikote harremana bera ez da arazo nagusiena, ni kezkatzen nauena da bikote harremanaren estatusa”**

Liburuari begiratuta, azala da atentzioa deitzen duen lehenengo gauza. Zer adierazi nahi izan duzu azal horrekin?

Ba kontua ez da batere poetikoa, hasiera batean nik nahi nuen nire lagun batek, hain zuzen, Nora Mugarzak, egindako azala erabil-

tzea, eta argialetzekoek ere gustuko zuten, baina egokiago ikusten zuten poesia-liburu baterako eta Schieleren beste honen aldeko apustua egin zuten, komertzialagoa zelakoan. Hala ere, dena esatera, Schieleren marrazki zehatz hori nik aukeratu nuen. Ez dakit zer bait

adierazi nahi nuen ala ez, estetikoki ederra iruditzen zait eta liburuaren edukari ondo egokitzen zaio, eta ez da emakume baten gorputz hamaika aldiz objektifikatua.

'Mamuak' aurreproiektutik, 'Erraiak' liburua aurkeztu berri duzu. Bikote haustura mingari



**bat du oinarri liburuak, eta emakumearen ikuspegitik kontatu duzu istorioa. Zergatik aukeratu duzu emakumearen ikuspegia?**

Ikuspuntu hori azaleratzea interesatzen zitzaidan. Batzuetan kanpotik irudi dezakeena baino modu askoz "inkontzienteagoan" haritzen dituzu horrelako erabakiak.

**Gizarte honetan single izatea edo zenbaki bakoiti izatea zita garrantzitsuetan ez dagoe-la ondo ikusia aipatzen duzu liburuaren hasieran. Gizartean, baina, gehienok bikotean bizi gara. Bakardadeari beldurra diogula aipatu zenuen liburuaren aurkezpenean. Nola bait esateko, bikote harremanei kritika egin diezu. Zer dela-eta?**

Egunero ikusten dudan frustrazio, amorru eta zoriontasun-gabezia ikaragarriagatik. Noski, salbuespenak daude beti eta ez dut arazoa totalizatu nahi. Horrez gain, gizarte-antolamendu modura apur bat mugatua iruditzen zait, bestelako moldeetarako aukerak izateak ez liguke kalterik egingo. Bestetik, bikotea bera ez da arazo nagusia, ni kezkatzen nauena da bikote-harremanaren estatusa, bikote-harremana bilakatzen dela pertsonaren harreman garrantzitsua, Harremana letra larriz *par excellence*, alaba-seeekikoak baino gaindi ez dezakeena, gerora.

**Liburuko protagonistei izena jarri beharrean, hizkiak erabili dituzu izendatzeko. Zer lortu nahi izan duzu identitate misterioitsu horrekin?**

Oso pedante jarrita, irakurtzen duenari bidea ematea bere pertsonaia propioak irudika ditzan.

**Kapitulua zenbatzeko modua eta oharrak jasotzeko sistema ere bereziak dira. Azalduiguzu apur bat.**

Besterik gabe, liburuan badira pasarte batzuk orainaldikoak eta beste batzuk iragane-koak eta hori adierazteko erabili ditut zenbakiak, 0 zenbakia daramatenak orainaldikoak dira eta -1,-2 eta abarrak ba iragane-koak. Bestetik, oharrak baliatu ditut istorioaren harria eten zezaketen digresio eta iruzkinak txertatzeko. Lehengoan esan zidatenez, testu nagusian traba egiten zuten, baina ohar modura testuaren osagarri bilakatzen dira.

**Bakarizketa estiloan idatzitako liburua da. Estilo jasoa, baina aldi berean, umoretsua darabilzu. Zergatik aukeratu duzu idazkera estilo hori?**

Lehen esan dudanaren haritik, idazketa-estilo hori gustuko dudalako, edo hori sentitzen

dudalako neureen, ez da erabat arrazionalki edo kontzienteki azal daitekeen zerbait. Estilo hori erabiltzen dut bestelakoetan ere, zuta-beetan eta blogean eta emailetan.

**Liburuari buruzko kritiken artean ondorengoa irakurri dut, besteak beste: "Kontzientziak astintzeko liburu gisa irakur daiteke". Gizartearen kontzientzian eragitea izan da zure nahia?**

Nahiko nahi handiustea litzateke hori nire aldetik, eta banaiz pixka bat, baina ez horrenbeste. Bestalde, nik ustez lortu nahi nuenak ez du garrantziarik, hemen axola duena da irakurtzen dutenek zer ondorioztatzen duten, edo nola irakurtzen duten.

**"Papera dut gustukoago, baina ez naiz digitalaren aurkari sutsua ere"**

**Itzulpengintzan lizentziatua zara eta Elearazi bloga kudeatzen duzu. Bistan da hizkuntze-kin harremanetan lan egitea gustuko duzula. Zelan ikusten duzu euskararen egoera oro har? eta literaturan?**

Baikorra naiz, baina etengabeko krisian gaudela ukazezina da, orokorrean denok baina bereziki gu, zilegitasun eta aitorten oso gutxi duen komunitate bateko kide gisa. Jendeak badu, dena den, halako itxaropenerako grina agortezin bat, eta bistan da zerbaitetan badihardugula.

**'Erraiak' izenburupean, emakume horrek erraietatik kontatzen ditu bere bizipenak. Zuk zeuk, zein hizkuntzatan transmititzen duzu egokien? Zenbat hizkuntzatan egiten duzu lan?**

Ba lan-lan euskaraz edo euskarara. Orokorrean euskaraz transmititzen ditut gauzak egokien, baina hizkuntza-gaitasunak ez dira finkoak eta garaia arabera, garaiko egokieraren eta hizkuntza-ingurunearen arabera, errazago datozkit berbak beste hizkuntza batzuetan.

**'Mamuak' aurreproiektuarekin irabazi zenuen Igartza Saria. Zer eman dizu sari hori irabazteak?**

Ba asko ikasi dut, baina ez nuke jakingo esa-

ten zehazki zer ikasi dudana. Nabarmenena litzateke eleberri-idazketaren prozesua bera, lehenengo aldiz egin dut horrelako zerbait eta, esaten duten moduan, onik atera naiz eta orain badakit zelakoa den *Erraiak* idaztea (zuzentzea, editatzea...). Esperientzia bat gehiago, alde horretatik. Energia bideratzeko modu oso emankorra dela idaztea; hori ere ikasi dut.

**Literaturan bidea egiten hasi zara eta zure lehenengo eleberria kalean da. Posible al da gaur egun literaturaz bizitzea? Zein zailtasun ditu literaturan abiatu nahi duen gazte batek?**

Egia esan, beste edozein gremiotan abiatu nahi duen gazte batek dituenaren antzekoak. Esan nahi dut, zailtasun horiek izaeraren aldetik bestelakoak izan daitezke batentzat edo bestearentzat, dagokion arloarekin lotuta doazen heinean, baina beste asko nahiko antzekoak izango dira, eta orokorrean prekaritate-arriskua eta prekaritate-potenziala, salbuespenak salbuespen, berdintsuak dira alde guztietan.

**Irakurtzeko gero eta ohitura gutxiago dagoe-la diote adituek, eta irakurtzen den gehiena pantailan irakurtzen dela; papera desagertu egingo dela, alegia. Zuk papera ala liburu elektronikoa nahiago duzu?**

Papera dut gustukoago, baina ez naiz digitalaren aurkari sutsua ere. Alde onak eta txarrak dituzte biek. Paperaren aldeko betiko topikoak errepikatzea besterik ez dut egingo, baina nire kasuan behintzat horrelaxe da: liburu oratzea, usaintzea eta hori dena gustatzen zait.

**Bartzelonan ari zara une honetan master bat egiten. Zertan datza?**

*Literatura konparatua eta literaturaren teoria* du izena, eta horixe egiten dugu, testuak konparatu (testuak horren zentzu zabalean: filmak, telesailak, liburuak...). Literaturaren teoriari azken hamarkadetan egin zaizkion ekarpenak ere lantzen ditugu, poskolonialismoa, feminismoa, kultura-ikasketak etab. Norbaitek ikasketa horiek egiteko interesik balu galdetu diezadala eta azalduko diot la-saiago.

**Zein dira aurrera begira dituzun asmoak?**

Master amaierako lana idaztea eta blogarekin orain arte moduan segitzea. Eta beste asmo normal-normal horiek: enpleguren bat aurkitzea, neure kasa bizitzea eta hori guztia.



# Lagungarri ala itogarri?

**Etixerako lanen gainekoa ez da eztabaida berria Hezkuntzako profesionalen artean, baina egia da inoiz ez besteko oihartzuna izaten ari dela gai hau azkenaldian eztabaida-foro eta komunikabideetan. Zenbait ikerketen arabera, etixerako lanak egiteari ordubete eta erdi inguru eskaintzen diote egunero 11-12 urte arteko ikasleek. Lan horiek ikaslearen garapenerako lagungarri edo besterik gabe karga diren argitu asmoz, Elgoibar Ikastolako, Elgoibarko Herri Eskolako eta Mendaro Ikastolako irakasle banarekin eta ikastetxe horietako guraso elkarteetako ordezkariekin elkartu gara.**

**Ainara Argoitia**

**E**tixerako lanak beharrezko dira? eta baldin badira, zein molde eta neurritan?. Horra hor eztabaida. Irizkiak askotarikoak dira, baina oro har hartuta, etixerako lan tradizionalen erudia zalantzan jartzen dute gehienek. Ariketa errepikakorak eta buruketa amaigabeak bidaltzearen kontra agertu dira galdekatutako guztiak, baina gehienek beharrezko ikusten dute eskola orduetan jasotakoa etxean lantzea. Are, etixerako lanik gabeko mundua irudikatzea bera ere kostatzen zaie batzuei, gauza askorekin kritikatu arren. Baliagari ikusten dituzte, adibidez, ikasitakoa sendotzeko, eta baita ardura, ikasteko ohiturak eta autodisiplina bultzatzeko ere. Haurrak eskolan egiten diharduenaren jarraipena egiteko ere balio die guraso batzuei, nahiz eta onartu duten horretarako beste bide batzuk

ere badituztela. Nolanahi ere, aldeko eta kontrako argudioak balantzan jarrita, kontrakoak gailentzen dira gehienek diskurtsoan.

Gurasoak dira, beharbada, kritikoenak. Garbi dute ikastea ez dela ikasgelara mugatu behar, baina gaur egungo etixerako lanen ereduarekin oso kritiko dira guztiak. Pedagogikoki onuragarriak direla esateko ebidentziarik ere nekez topatzen dute. “Ez dago baieztapen hori frogatzen duen ikerketarik”, laburbildu du Ainara Egigurenek, irmo. Bi seme-alabaren ama da Egiguren, eta irakaslea da ogibidez. Haren ustez, hezkuntza-sistemaren porrota adierazten dute etixerako lanek hein batean, eskolan landu beharko litzuket lanekin gaitortzen dituztelako ikasleak. “Ikasleei eta familiari denbora librean lapurtu beharrean, eskola barruan egiten dena eta egiten den modua aldatu beharko ge-

nituzke, lan handia den arren”, dio. Egigurenek uste du ikasleek eskolan sartzen dituzten orduak nahiko direla, hango eginbeharrak han burutzeko. “Zortzi orduko lanaldia duenari lanaldi hori beste bi orduz luzatzea ez genuke ondo ikusiko, ezta? Bada, berdina da. Umeak behar du denbora gurasoekin egoteko, kirola egiteko, eta denbora behar du, beste ezerekin ginetik, umeekin egoteko, egunean ordu asko ematen dituztelako pertsona helduz inguratuta. Eta deskantzia ezinbestekoa da umearen garapen integrale-rako”.

Bat datoz Roberto Altzerreka eta Silvia Gabiola Kalamua guraso elkarteko ordezkariak ere. “Porrota esatera ez naiz ausartzen, baina gabezia handi bat bada behintzat eskolan egin beharrekoak etixerako bidali behar izatea”, zehaztu du Altzerrekak. Ez dituzte



itota ikusten euren seme-alabak, baina, hala ere, etxerako lanen eredia aldatu beharraz mintzatu dira. Ikasleei agintzen dizkieten etxerako lanak "kalitate txarra" dutela dio Gabiolak, ez direlako pertsonalizatuak izaten, eta ondorioz, ez dutelako balio ikasleek izan ditzaketen zailtasunei erantzuteko. Gabiolak irudipena dauka etxerako lanak eta matematika ia-ia sinonimo direla oraindik ere. Ikasgai liderra izaten jarraitzen duela dio, eta gainerako irakasgai ardatzek, "ikasgai astunek", jarraitzen diotela. "Konforme nago etxean ere lan egin behar dela diotenekin, baina ikasle guztiak ez dituzte behar berdinak, eta zergatik egin behar dituzte guztiak ariketa berdinak?. Zailtasunak dituzten ikasleek kezkatzen dituzte, nahi eta ezinean dabilzanek. "Nola egingo dituzte etxean ariketa horiek eskolan oinarria ulertu ez badute? Nola egingo dituzte etxean ariketa horiek, laguntza profesional gabe? Ze gogorekin joango da biharamunean eskolara ume hori?", bota du Altzerrekak. Matematika irakaslea da bera, eta alde horretatik "salbatuta" dagoela esan dio albotik Gabiolak, baina biek ere ondo dakite, jakin, Robertorena ez dela gurasoen artean nagusitzen den profila.

Monse Rubio Mendaroko Arno guraso elkarteko kidea da. Bi alabaren ama da, eta psikologoa lanbidez. Ikasle eta gurasoen beharrei eta ezinei erantzuten saiatzen da egunerok lanean, eta etxerako lanena bada kezkatzen duen gai bat. Gaur, oraindik, ikasleei etxerako agintzen dizkieten lan asko eskolan egin gabe laga dituztenak direla dio, eta ez ez du egoki ikusten. "Etxerako lanak ondo daude, beti ere eskolan ikasitakoa errepasatzeko diren neurrian, baina ezin duguna da ulertu ez duen gai horren inguruko ariketez kargatu ikaslea, horrek frustrazioa dakarrelako eta frustrazioak eskolarekiko edo ikastearekiko jarrera ezkorra susta dezakeelako". Ikasketetan ondo dabilenak orduerdian egiten duen errepasoa, ordu bete pasako "sufrikario" izan daiteke zailtasunak dituenarentzat, Gabiolaren hitzetan, eta ikaslearentzat ez ezik gurasoentzat ere arazo bihur daiteke.

## Zerbait ondo ez doan seinale dela diote ikasleak partikularrera bidali behar izatea

Hala uste dute guztiak. "Familiari eta aisialdiari denbora kendu eta familia giroa zapuzten dute ohiko etxerako lanek kasu gehienetan", dio Eigurenek, eta ildo berean mintzatu dira gainerako hirurak ere. Ingurura begiratzeari baino ez dagoela dio Rubiok: "Ondo dabilenak sekula ez dauka arazorik, baina curriculum akademikoa betetzeko lanak dituzten ikasleak itota ere ikusi ditugu, autoestima arazoekin; eta gurasoak berdin, hizkuntzagatik edo bestelako arrazoiengatik lagundu ezinak sortzen dien frustrazioarekin, kulpa sentimenduarekin. Whatsapp bidez elkarri buruketak bidaltzen dabilta gurasoak, seme-alabei lagundu ezinik, eta kasu askotan eramanezina bihurtzen da hori".


### Klase partikularrak

"Afalordua edo familiar egoteko denbora liskar ordua ere gerta daiteke kasu horietan", gaineratu du Altzerrekak. Umea eskolatik "galduta" badator, eta lanetik bueltan gurasoak etxean irakasle lanetan hasi behar badu, jai dagoela dio. "Gurasoa, gainera, ez da profesionala eta gerta daiteke lagundu nahi horretan kalte egitea ere, beharbada eskolan modu batera irakasten dietelako eta gurasoak, eskola zaharragokoak, beste modu batera", zehaztu du. Baina ez da hori bakarrik. Guraso guztiak ez dira gai euren seme-alabak ekartzen dituzten etxerako lanetan laguntzeko. "Eta ez dute zertan", gehitu du Gabiolak. Batzuek hizkuntzarekin berarekin ere arazoak dituztela nabarmendu du, eta gehienek ez dutela etxeko irakasle izateko behar adinako maila akademikorik. Seme-alabei laguntzeko, guraso askok "ikasi" egin behar izaten dutela nabarmendu dute, eta halakotan eskola eta familiarolak nahastu egiten direla. Eta egoera horretan, gurasoak ezin duenean lagundu izan gaitasunik ez duelako edo edota etxean liskarrik nahi ez duenean, klase partikularrak izaten dira "irtenbidea". Eta hori, seme-alaba klase partikular batera bidali behar izatea, gauzak ondo egiten ez garen seinale da, Altzerrekaren ustetan.



SILVIA GABIOLA

*"Ikasle guztiak ez dituzte behar berdinak, eta zergatik egin behar dituzte guztiak ariketa berdinak?"*



AINARA EIGUREN

*"Deskantzia ere ezinbestekoa da umearen garapen integralerako"*



MONSE RUBIO

*"Ezin ditugu ulertu ez duten gaien inguruko ariketez kargatu etxean, horrek eskolarekiko jarrera ezkorra susta dezakeelako"*

Bat dator Edurne Bilbao Elgoibar Ikastolako guraso elkarteko ordezkaria ere. Bilbaok dio eskolak badituela berez gabeziak dituztenei edo zailtasunak dituztenei laguntzeko bitartekoak, eta gurasoak badituela ikastetxearekin harremanetan egoteko bideak, baina onartzen du gaur egungo “gurpil zoroak” horretara eramaten dituela sarri gurasoak. “Mundu lehiakor honek hortara garamatza, eta badirudi, hor ez dagoena ez dela inora iritsiko. Gurasoak ere harrapatuta gaude. Eskatzen zaigu guraso zoragarri izatea, langile fenomenoak, hezitzaile apartak... ez da erraza”. Garbi dute etxerako lanak umearenak direla eta behar duenerako alboan izan behar dituela gurasoak, baina ez gainean, “menpekotasuna ez delako ona”, eta ikasleak autonomo izaten ikasi behar duelako.

Sarri errepikatzen den leloa da gurasoen artean, baina betetzen dituzte kontuak. Onartzen dute, oharkabean, sistema hori elikatzen ari direla, gurpil zoroan harrapatuta daudela. “Denok izan behar garenez onak denean, herrenak izan arren, denok iritsi behar dugunez Olinpiar Jokoak jokatzera, eta inork ez duenez onartu nahi nork bere erritmoa duela ikasteko eta gauzak barnerratzeko, bada horixe gertatzen zaigu”, dio Altzerrekak. “Bai, hori horrela da, baina gertatzen dena da Olinpiar Jokoetarako prestatu beharrik izan gabe ere, ikasle batzuentzako curriculumean zehaztutako helburu akademi-

koak betetze hutsa, erdi maila horretan ibiltze hutsa, esfortzu handia dela”, zuzendu dio Gabiolak ondotik.

Eskola orduak, etxerako lanetarako denbora eta eskolaz kanpoko jardueretan ematen duten denbora kontuan hartuta, gaurko gaztetxoei denbora libre oso murriztua gelditzen zaiela onartu dute gurasoek, eta hori, kontuan hartuta, gehienek esan dutela euren seme-alabak arazo handirik gabe egiten ari direla aurrera eta etxerako lanak ez direla euren horrenbesteko buruhaustea. Gabiolarekin eta Altzerrekarekin gai honi buruz ari garela, baina, bigarren horren 12 urteko alaba sartu da gelara. Astuna dirudi haren motxilak. Galdetu diogu etxerako lanez zer uste duen, neurrian edo gehiegitxo agintzen dieten ustea duen, eta itzulingururik gabe eman du erantzuna: “Nahiko!. Ikaslearentzat etxean zerbait egin behar hutsa beti zerbait badela jakinda ere, eta ikasle gaztearen eta helduaren ikuspuntuak zein ezberdin izan daitezkeen onartuta, argigarria izan da erantzuna.

Etxerako lanen inguruan sumatzen dituzten arazoei irtenbidea emateko errezeptarik ez du inork, baina gutxien-gutxienez, ikastetxeetan irizpide batzuk markatu behar harko lituzketela uste dute galdekatutako gurasoek, gaur, gure bueltako ikastetxe gehienetan irakasleen esku dagoelako etxerako lanak bidaltzea edo ez. Irakasleen hizkuntzan esanda: Edo zortekoa zara, edo ez.



**EDURNE BILBAO**

*“Etxerako lanak ikaslearentzat dira, eta gurasoak laguntzeko egon behar du, baina ez du uneoro gainean egon behar”*



**ROBERTO ALTZERREKA**

*“Umea eskolatik galduta badator, eta gurasoak hasi behar badu irakasle lanetan, jai dago”*

## IRAKASLEEN AHOTSA

Irakasleen esku dago gaur egun ikasleei etxerako lanak agintzea edo ez, eta ulertzekoa da, beraz, irakasle beste iritzi egotea gai honen inguruan, nork bere estiloa duelako, nork bere lan egiteko modua, baina, hala ere, lerro nagusienetan bat datoz BARRENEK galdekatutako hiru irakasleak: Elgoibar Ikastolako Joxe Arenas, Elgoibarko Herri Eskolako Rakel Agirre, eta Mendaro Ikastolako Itziar Cardenas. Etxerako lanen gainean luze hitz egin daitekeela diote hirurek, baina eredu tradizionalari onura gutxi ikusten dizkiete, eta airtortu dute idatziz ezer jasota ez dagoen arren, eredu hori aldatu nahi bat badela eu-

ren ikastetxeetan, nahiz eta oraindik, jakina, zenbaitetik bidaltzen dituzten beste lanak ere.

Jose Arenas DBHko 3. eta 4. mailetako irakaslea da gaur, eta bereiztu egiten ditu etxerako ohiko lanak [tarea izenez izendatzen ditu] eta etxerako lan pertsonala. Tareen balioa “hutsaren hurrengoia” dela dio. Derrigorrez egin beharrekoak dira, denentzat ariketa berdinak bidaltzen dira, eta irakasleari “oso zaila” egiten zaio lan horiek baloratzea, “sarri askotan geure muturren aurrean aritzen direlako etxean egin beharreko horiek elkarri kopiatzen”. Lan pertsonala sustatu eta indartu behar dela uste du berak. “Ikasleak

ohitura hartu behar du etxean erreparatzeko, modu ordenatu eta programatu batean, eta horretarako du nork bere agenda. Etxerako agintzen zaien egiteko hori, baina, ezin da sekula lan berri bat izan”, gehitu du. Hori bai, argi laga du inor ezin dela etxera joan lanik ez duela esanez. “Gurasoa ezin da ordezkari irakasle bihurtu. Irakaslea ebaluatzen dugu, ez gurasoa, eta hori argi utzi behar da”, dio Itziarrek. “Guraso batzuk etortzen zaizkigu haserre ere, esanez notetan ez dela eurek etxean egindako lana islatzen, baina kontua da gu ez garela hori baloratzen ari. Irakasleak egin behar ditu lanak”, nabarmendu



du Joxek. Oinarrian bat datoz guztiak. “Nik gurasoei eta ikasleei ere esaten diet, etxerako bidali zaiena egin ezin badute ekartzeko egin gabe, eta gurasoak ez aritzeko etxean lanak zuzentzen, horretarako gaudelako gu hemen, behar beste azalpen emateko”. Joxek esandakoaren ildotik, Rakelek eta Itziarrek ere uste dute etxerako lanek errepaso funtzioa bete behar dutela, baina horretarako baino gehiago bestelako balore batzuk lantzeko ere lagungarri ikusten dituzte: denbora antolatzen ikasteko, ardura hartzeko, ahaleginik egin gabe ezer ez dagoela ikusteko, eta bereziki, eskolako gai buruz familiarekin jarduteko tarte bat hartzeko, edota zenbait familiaren kasuan, tarte hori hartu beharra dagoela gogorarazteko aitzakia izateko. Hori bai, Rakelek argi laga du balore horiek beste modu askotan ere landu daitezkeela eta

egin behar hori ezin dela huts-hutsean eskolaren esku laga. “Ardurak hartzea eta denbora neurtzen ikastea ez da etxerako lanekin ikasi beharreko zerbait”. Horren haritik esan du etxerako lanek ez luketela ezinbesteko izan be-

har ikasleak helburu akademikoak betetzera iristeko, nahiz onartu duen –duten– zenbait ikasleri oso lagungarri zaiela, nahi edo ez gutxiengo batzuetara iritsi beharra dutelako gaurko sisteman.

Garbi dute eskolak bermatu behar duela helburu akademikoak betetzera iristen direla, nahiz eta onartu duten gabeziak badirela, “handiak batzuk”, eta ikasle bakoitzaren gaitasunak eta ikas-erritmoa errespetatzen saiatu aren, curriculuma bete behar horrek estu jartzen diela sarri. “Ume bakoitza mundu bat da, eta familiak eta inguruak ere modu batean edo bestean eragiten die. Denek ez dituzte behar berdinak, ez dute inguru bera, eta gaitasunak indartzeko egin beharko genuke lan, baina beti ez da erraza”, aitortu du Rakelek.

Eskola orduak gauza berriak ikasteko baliatu beharko lirtekela uste du, eta entrenamendurako balio behar duela etxerako lanak. “Hortaz, gauza mekaniko batzuk utzi genitzake etxerako, beti ere neurria oso on-

do zainduta, eskolaz kanpoko orduak atsedenerako eta familiarekin egoteko orduak direlako, eta hori ondo zaintzea oso garrantzitsua delako bai ikasketa prozesurako eta baita haurren garapenerako ere. Ulertezina egiten zait, adibidez, astebururako edo oporrerako lanak bidaltzea, hori denontzat delako atsedenerako tartea”, dio Rakelek. Horregatik, Itziarrek uste du etxerako lana gehiago izan behar dela lan osagarria: “Dela eskolan lantzen ari diren proiektuarekin lotutako informazioa bilatzea, gai horri buruz gurasoekin hitz egitea, irakurketa lantzea, edo eta modu batean edo bestean sormena eta autonomia lantzea”.

Autonomia aipatu du Itziarrek, eta bada irakasleak kezkatzen dituen gai bat. Autonomia aipatuta, ikasleak etxerako lanak bakarrik egiteko gai izan behar duela nabarmen-

tzten dute guztiak. Laga egin behar zaiela. Iruditzen zaie sarri askotan autonomiaren gaia ez dela aintzat hartzen, eta menpekotasun handiegia dutela gaurko umeek. “Dena ematen diegu eginda”, dio Itziarrek. “Egun osoa pasatzen dute helduren batek

zainduta”.

Gurasoak okupatu egi ikusten dituzte irakasleek. Ohartarazi dute askotan seme-alabak ikusi ere ez dituztela egiten egun osoan, eta horregatik, “umeak kalean galduko diren beldurrez”, eskolaz kanpoko jardueretara bidaltzen dituztela. “Zer egin behar duten entzuten pasatzen dute, beraz, egun osoa. Hain dute dena antolatuta, jolasten ere ahaztu zaiela. Jolastokian futbolekin ari direla baloia kentzen badiezu, adibidez, zer egin ez dakitela gelditzen dira eta jolastordua kendu diezula esaten dizute. ‘Jolastordua ez, txikito! baloia kendu dizut’”, gehitu du horren harira Joxek. “Umezaroa galdu egin da”, bota du. Eta horrek, euren adin berekoekin nagusirik tartean ez dela egon ezin, kalte handia egiten diela aitortu dute hezkuntzako profesionalak. DBHra asko eta asko “ilusio eta interes sozialik gabe” iristen direla ikusi du Joxek, eta gogoetara deitu du, besteak beste, belaunaldi oso bat galdu ez dadin.

## Umei ez zaiela ume izaten lagatzen uste dute profesionalak



**RAKEL AGIRRE**

*“Arduratsu izaten eta denbora neurtzen ikastea ez da etxerako lanekin ikasi beharreko zerbait”*



**JOXE ARENAS**

*“Hain dute dena antolatuta, jolasten ere ahaztu zaiela umei. Umezaroa galdu da”*



**ITZIAR CARDENAS**

*“Dena ematen diegu eginda. Egun osoa pasatzen dute helduren batek zainduta”*

## Atxutxiamaika aisialdi taldeak prest dauka udaberriko eskaintza

Martxoaren 28ra arte eman daiteke izena

**E**lgoibarko Izarraren Axutxiamaikaren Aisia egitasmoak aurkeztu du aurtengo udaberriko oporraldia. Txiki-nentzako txokoak antolatu dituzte, eta gaztetxoekin egonaldia egingo dute Zarautzen.

2tik 8 urtera arteko umeentzat txokoak prestatu dituzte. Apirilaren 14tik 16ra eta 22tik 25era egingo dituzte txokoak, 9:00etatik 13:00etara, Kalegoen plazan. Interesatuak 46 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 41 euro). Nahi duenak, zaintza zerbitzua ere kontratatu dezake 7:30etik 9:00etara bitartean.

LH3tik LH6ra arteko gaztetxoekin, bestalde, Zarautzen egingo dute egonaldia apirilaren 22tik 25era. Herria ezagutu, irteerak egin eta surfa praktikatzeko aukera izango dute, besteak beste. Interesatuak 91 euro ordaindu beharko dituzte (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 82 euro).



Izena emateko azken eguna martxoaren 28an izango da. Informazio gehiagorako 943 741 626 telefonora deitu edo [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com) webgunea kontsultatu daiteke.


### Patxillori eskainiko dio Musika Bandak domekako kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan Herriko Antzokian, eta saioa Bittor Alberdi *Patxillori* eskainiko diote. 1976. urterako Bandako kidea zen, eta azken urteetan bera zen tronpeta bakarlarria. Patxillo otsailaren 18an hil zen, 51 urte zituela. Bost pieza eskainiko ditu Musika Bandak domekan, eta azken piezan entzungo den tronpeta doinua Patxillo berarena izango da. Kontzertua 12:30ean izango da.

1. *Pompa y circunstancia* (Elgar)
2. *Water music* (Haendel)
3. *Free world fantasy* (J. de Haan)
4. *Chess* (Ulvaeus-Anderson)
5. *El torico de la cuerda* (L. Serrano).

### DJ AMSIaren kontzertua gaur, Kultur Etxeko sotoan

Sinuose kolektiboak proposamen experimentalista prestatu du gaur gauerako: DJ AMSIA. Azkoitiko musikari berezi honek ez du musika-tresnarik jotzen, landu egiten ditu. Soinuak fabrikatzeko soinu-fabrika da berea, erein, bildu, jan, eta landu egiten ditu. Musika-kutxa, grabazioak, sekuentziadoreak, diskoak biratzekoa eta intuizio librean oinarritutako estilo bitxia dira haren armak, eta horiekin minimalismo eta abstrakzioaren bidean sartzen da. 23:00tan izango da kontzertua, eta sarrerak 3 euro balio ditu.



## 70 dantzarik hartu zuten parte Elgoibarko Auresku eta Soinu Zahar Txapelketan

Gipuzkoako Auresku eta Soinu Zahar txapelketako ligaxkari dagokion saioa jokatu zuten asteburuan 70 dantzarik Elgoibarko Herriko Antzokian, eta horien artean, hamar elgoibartarrak izan ziren: Eneko Gonzalez, Gaizka Uranga, Irati Marcos, Nerea Sasiain, Oihane Agirrebeña, Naroa Lopez, Amaia Sasiain, Leire Sasiain, Saioa Marcos eta Maialen Loiolak. Jon Lizarralde dantza irakasleak jakinarazi duenez, "maila ona" eman zuten guztiek: "Jendaurrean dantzan egitera ohitzea da gure asmoa, eta horrelako esperientziekin asko ikasten dute-eta".





## 82 zuhaitz gehiago daude Elgoibarren

Sargoaten eta Albitxurin landatu dituzte zuhaitzak

**Z**uhaitz Eguna berezia izan da aurten Elgoibarren, izan ere, bi ekinalditan ospatu dute-eta. Zapatuan, Morkaikok antolatu zuen bere Zuhaitz Eguna, eta martitzenean, Udalak, ikastetxeekin elkarlanean.

Morkaikoren Zuhaitz Eguna Sargoateko iturria berreskuratzeko lanen barruan ulertu behar da. Mendizale elkarteak auzolanean egin ditu Sargoateko iturria berritzeko lanak, eta tartean 50 zuhaitz landatu dituzte. Pago arbolak ziren gehienak, 35 zuhaixka, hain justu ere. Beste zuhaitz mota batzuk ere landatu zituzten, ordea: bost in-txaurrondo, bost urki, bost lizar, bi haritz, hiru gereziondo eta ginkgo bat. 35 bat umek hartu zuten parte irteeran.

Martitzenean, berriz, 32 zuhaitz landatu zituzten Elgoibarko eskola umeez, Albitxuriko industrigunera-ko bidean. Hogei lizar, hamar urki eta bi gereziondo landatu zituzten, Udaleko eta ikastetxeetako ardura-dunen laguntzarekin. Amaieran, txartel batean euren izenak jarri eta enborretik zintzilik laga zituzten, nork landatu zuen oroitzeko.



32 zuhaitz landatu zituzten Albitxurin.



35 umek hartu zuten parte Morkaikoren zuhaitz egunean.

### Barrikotea egingo dute Kimetz elkarteak, martxoaren 29an

Aurten ere Barrikotea antolatu du Kimetz elkarteak. Martxoaren 29an egingo dute, eta azken urteetako ohi-turari jarraituz, sagardotegiko kupela ekarriko dute elkartera. Sagardotegi menuaz gozatzeko aukera eskainiko dute, beraz, Elgoibarren bertan. Tiketak Iturri tabernan daude salgai, 20 euroan. Aurten, *Libre!* dinamika-ekin bat egingo dute, epaiketa politikoen bukaera eskatzearekin alegia, Elgoibarren epaiketa politikoa izan dituztenei edo dauzkatenei, eta baita azken hilabeteetan Madrilen epaitu dituzten gazteei eta ez hain gazteei, babesa eskaintzeko.

### Zeltiar musika egiten duen hirukotea izango da gaur zortzi, Txarridunan

Jab Akustik Trio hirukotearen kontzertua antolatu du Imanol Urainek datorren barixakurako. Zeltiar musika egiten du hirukote honek. Kontzertua 23:00etan izango da, Txarriduna jatetxean. Sarrera, doan.



## Maite Maiorak irabazi du mendi lasterketen Espainiako Kopako lehen proba, Congost bailaran

Mendaroko mendi lasterketan hartuko du parte Maiorak apirilaren 13an

**A**iguafredan (Katalunia) jokatu zen domekan mendi lasterketen Espainiako Kopako lehen proba, eta emakumezkoetan Maite Maiora mendaroarra izan zen azkarrena. 500 lagun inguru irten ziren Aiguafredako irteera puntutik, eta 3.000 metroko desnibel positibo gainditu behar izan zuten, 42 kilometroko ibilbidean. Azkenean, 443 lagun iritsi ziren helmugara, tartean 48 emakume; eta, emakumezkoen artean Maiorak ez zuen areririk izan. 4 ordu, 29 minutu eta 19 segundoko denborarekin bera izan zen helmugaratzen lehenengoa, eta ia hamabi minutuko aldea atera zion Nuria Picas kataluniarrari. Egungo Espainiako txapelduna da Picas eta etxeko lasterketa irabazteko faborittoa zen arren, ezin izan zion Maiorak hasieratik bukaerara arte ezarri zuen erritmo biziari eutsi. Sorbaldan egin zioten ebakuntzatik primeran osatu da antxitxikari mendaroarra eta sasoi betean dagoela erakutsi du.

### Kilimon Trail, apirilaren 13an

Mendaroko Txirindulari Elkarteak antolatuta apirilaren 13an jokatu da Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketa, eta dagoene-



ko Mendi lasterketen Espainiako Kopako egungo bi liderrek, Maite Maiorak zein Luis Alberto Hernandok, baieztatu dute Mendaroko proban parte hartuko dutela. 10:00etan hasiko da lasterketa, eta korrikalariak 24 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, 1.350 metroko desnibel positiboa gaindituz.

Izenematea Internet bidez egin behar da, [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) webgunean, apirilaren 10erako. Egunean bertan ere izena emateko aukera egongo da, gehienezko partaide kopurua ez baldin bada bete.

## Herritarrei dei egin die Sanlok, bihar Olaizagara joan daitezen senior taldeak animatzera



Lauko nesken taldeak eta Alcorta mutilen taldeak jokatu dute bihar Olaizaga kiroldegian. 18:00etan hasiko da nesken partida, eta oraingoan norgehiagoka zaila izango du Igor Lizarralderen taldeak. Ligako azken jardunaldia izango da, eta Beti Onak liderra hartuko dute etxean. Alcortak, bestalde, Santoñaren kontra jokatu du. Etxean fin aritzen dira kantabriarrak, baina kanpoan maila jaisten dutela aprobeztatzen saiatuko dira Gojko Vucinicen mutilak laugarren postuari eusteko. 19:45ean hasiko da mutilen partida. Sanloko ardura-dunek elgoibartar guztiak animatu nahi dituzte partida ikustera, jai giroan eskubaloi jardunaldi garrantzitsu batez gozatzeko.

Sanloko bi senior taldeek garaipen handiak lortu dituzte azkenaldian: Laukok 31-22 hartu zuen mendean San Adrian talde bizkaitarra, eta dagoeneko ziurtatu dute Laukoko neskek datorren urtean ere Zilarrezko Ohorezko mailan egongo direla. Alcortak, bestalde, 35-39ko emaitza lortu zuen Zaragozara eginiko bidaian, Dominicos taldearen aurka. Aragoiko taldea sailkapen nagusiko bigarren postuan dago, eta hirugarren jardunalditik partidarik galduta zegoen.

### Sarai Sanchez Gipuzkoako judo txapeldun, infantiletan

Gipuzkoako judo txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Pasaia kiroldegian, eta infantiletan Sarai Sanchez elgoibartarra izan zen txapelduna, 40 kilogramotik beherako kategorian. Egoitz Mora Egokran judo eskolako arduradunak adierazitakoaren arabera, "nagusitasun handiz" irabazi zituen elgoibartar gazteak bere bi borrokak. Orain, Euskadiko txapelketa prestatzeko lanetan ari da, izan ere, lehen sailkatuak bakarrik izango du Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera.






# Iñigo Larizek irabazi du Andres de Regil eski zeharkaldia, bigarrenkoz

Arkaitz Iruretak hirugarren egin zuen

**A**ndres de Regil eski zeharkaldia jokatatu dute asteburuan Europako Mendietan, eta Iñigo Lariz elgoibartarrak eta Antonio Alcalde madrildarrak osatutako bikoteak irabazi zuen. Iaz, Mikel Navarro urretxuarra bikotekide zuela irabazi zuen Iñigo Larizek Andres de Regil eski zeharkaldia. Aurten, Navarro min hartuta dagoela-eta, Antonio Alcalde madrildarra izan du sokalagun Larizek. Zapatuko proba egiteko 2:27:34 denbora behar izan zuten Larizek eta Alcaldek. Proba hori Euskal Herriko bikotekako txapelketa ere bazen, eta Arkaitz Iruretak eta Javi Dominguezek bigarren postua eskuratu zuten [Larizek madrildar batekin bikote egin zuenez, sailkapenetik kanpo geratu zen].

Domekan ere Lariz eta Alcalde izan ziren azkarrenak, eta hiru minutuko aldea atera zieten bigarrengoei. Azkenean, beraz, 2:58:46 denboran errenditu zituzten bigarren eta laugarrenak, eta eurak izan ziren txapelak. Arkaitz Iruretak hirugarren pos-



tuan sailkatzea lortu zuen Javi Dominguez bikotekide zuela.

## Elgoibartar gehiago

Beste elgoibartar batzuek ere parte hartu zuten zeharkaldian Morkaikoren ize-nean: Iñaki Laskurain eta Joseba Elustondo 28. postuan sailkatu ziren (5:27:24), eta Aitor Azkue eta Iñigo Conde 33. postuan (6:31:17).

## 60 bat umek hartu zuten parte Pilota Egunean

Kirol jarduerak sustatzeko egitasmoaren barruan, Pilota Eguna antolatu zuen Elgoibar Ikastola zapaturako. 6tik 14 urtera bitarteko 60 neska-mutilek hartu zuten parte, 15 finaletan. Lagunak pilota eskolako arduradunek egin zituzten epaile lanak. Senide eta lagunez gain, ikusle asko batu ziren Kalegoen plazan, eta giro onean joan zen pilotaren jai.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 2 – Amurrio 1 (3. maila)  
Elgoibar 1 – Anaitasuna 1 (Erreg.)  
Elgoibar 1 – Zarautz 3 (Neskak)  
Zarautz 0 – Elgoibar 0 (Jub.)  
Elgoibar 2 – Zarautz 1 (Kad. A)  
Allerru 5 – Elgoibar 6 (Inf.)  
Elgoibar 3 – Amaikak Bat 1 (Inf. Txiki)  
Elgoibar 4 – Amaikak Bat 3 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

King-Kong Elg. 3 – Ibarra 3 (Jub.)

### ESKU PILOTA

Lagunak 3 – Aloña Mendi 22 (3. mailako kad.)

### ESKUBALOIA

Lauko Elg. 31 – San Adrian 22 (Sen. neska.)  
Dominicos Zaragoza 35 – Alcorta Elg. 39 (Sen. mut.)  
Donibane 29 – Gabaz Elg. 27 (Sen. mut.)  
Astigarraga Elg. 23 – Aloña Mendi 17 (Jub. neska.)  
Kukullaga 27 – Astigarraga Elg. 13 (Jub. neska.)  
Egia 37 – Beristain Elg. 26 (Jub. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 25 – Basauri 18 (Kad. neska.)  
Kukullaga 23 – Tecnifuelle Elg. 22 (Kad. neska.)  
Aloña Mendi 37 – Pneumax Elg. 28 (Kad. mut.)  
Murgil Elg. 17 – Leizaran 26 (Kad. neska.)  
Deca Elg. 30 – La Salle 16 (Inf. mut.)  
Ikus Elg. 20 – Zarautz 17 (Inf. neska.)  
Cometel Elg. 33 – Eibar 17 (Inf. neska.)  
Bidasoa 12 – San Roke Elg. 23 (Inf. neska.)  
Bankoa Elg. 20 – Bidasoa 19 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Minxetan)

Zapatua, 22  
12:30 Elgoibar – Kostkas (Inf.)  
16:30 Elgoibar – Tolosa (Jub.)  
Domekia, 9  
11:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domekia, 23  
12:30 Concepto Elg. – Labastida (2B)

### ESKUBALOIA? (Kiroldegian)

Zapatua, 22  
10:00 San Roke Elg. – Aloña Mendi K.E. (Inf. neska.)  
11:15 Pneumax Elg. – Usurbili (Kad. mut.)  
12:30 Beristain Elg. – Hondarribi (Jub. mut.)  
18:00 Lauko Elg. – Beti Onak (Sen. neska.)  
19:45 Alcorta Elg. – Santoña (Sen. mut.)  
Domekia, 23  
9:15 Sukia Elg. – Aloña Mendi (Aleb. neska.)  
10:30 Gabaz Elg. – Irungo Gazteak (Sen. mut.)

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **636 977 615**
- Emakumea lan bila. ☎ **602 186 462**
- Emakumea lan bila. ☎ **646 464 300**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 102 186**
- Gizonezkoa lan bila: igeltsero, zerbitzari, lorezain, soldatzaile... Nagusiak zaintzeko ere prest. ☎ **622 321 095 / 631 506 108**
- Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Erizain laguntzaile titulua dut. Interna edo orduka. ☎ **680 226 039**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Geriatría laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **646 931 162**
- Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Egun erdiz, orduka edo asteburuetan. Interna egoteko ere prest. ☎ **680 121 252**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **636 247 429**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **664 009 684**

- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Orduka. Asteburuetan ere bai. ☎ **628 524 420**
- 35 urteko emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **602 865 726**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia handia daukat. ☎ **675 358 119**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako. Esperientziaduna. ☎ **677 449 458**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo jardun osora. ☎ **632 395 829**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ **606 354 982**

### ETXEBIZITZAK

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **637 799 659**

## PARTIKULARRAK

- Ingeles klaseak ematen ditut etxetxetxe, maila guztietan. ☎ **680 319 002**

## KINTOAK

- 1974an jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 17an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira, Kalegoen plazan. Luntxa, bazkaria, argazkia eta DJa izango dituzte. Interesatuak 45 euro ordaindu behar dituzte, maiatzaren 8rako. Laboral Kutxa: 3035 0007 21 0071128773
- 1964an jaiotako eta aurretik 50 urte beteko dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute Sigma jatetxean, ekainaren 21ean. Interesatuak 60 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 20 0071129002. ☎ **639 925 597 / 648 191 042 / 608 555 489 / Elgoibar1964\_quintos@yahoo.es**

## BESTELAKOAK

- Sei urteko ume baten txaleko txanoduna galdu genuen martxoaren 14an, Viento Sur inguruan. Kanpotik beltza da eta barrutik urdina. ☎ **620 597 914**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Klase partikularrak: **10€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Klase partikularrak: **8€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Gogoetak. Etxalde askotan ari dira urteko balantzeak aurkezten, eta hori dela eta, aso dira azkeneko hilabeteotan galdera antzekoak eginez etorri zaizkidanak.**

1- Batetik, uste dute larregi ordaintzen ari direla egiten diren mantenu lan txikiengatik.

2- Bestetik, uste dute beti langile berdinak kontratatzen direla lan horiek egiteko, zenbaitetan legeak ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte ere.

Bi kasuetan argumentua bera da: egin beharreko lanak hain dira txikiak profesionalak ez duela izaten lanari ekiteko interes handirik. Bi kasuetan emaitza beti berdina izaten da: urte bukaerarako faktura handiegia egiten da, behin betiko konpondu beharko lirakeen arazoei behin behineko irtenbideak ematen zaizkielako.

Nik neuk beti pentsatu izan dut lan guztiak profesionalak burutu beharko lituzketela, bezeroak eskatutako zerbitzuak bermerik handienarekin bete daitezten. Profesional orok ondo aztertu beharra du arazoa zein den eta baita bezeroaren beharrak zeintzuk diren ere, eta administratzailea da behar beste informazio eskatu eta bildu behar duena, gero batzarrean gaia gardentasunez aurkeztu, eta behin betiko aurrekontuak eskatu eta kontratu egoiak izenpetzeko. Era berean, etxe-jabe horien komunitateak ere hitza hartu behar du, behin eta berriz gertatzen diren arazoentzat behin betiko soluzioak eskatuz.

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• Gure udaberriko larrosak dagoeneko 2 urtetxo! Zorionak, **Ju-ne**, etxekoan partez.



• Zorionak, **June**, hilaren 18an 5 urte egin zenituelako. Guztion partez.



• Zorionak, **Maddi**, astelehenean 5 urte egin zenituelako. Familiakoan partez, bereziki ahipa Garazi eta lehengusu Beñat, Denis eta Nahia txikiaren partez.



• Zorionak, **Martin**, Paula lehengusinarene eta osaba-izeben partez, hilaren 24an zure eguna delako. Muxu potolo bat.




• Zorionak, **Martin**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, familiakoan partez.



• Zorionak, **Luri**. Bos-tekkoa, txapeldun!



• Zorionak, **Maia**, gaur hilak 21, zure eguna delako. Zortzi tirakada belarritik eta muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Gorkaren partez.



• Zorionak, **Beñat!** Igandean 9 urte! Ondo pasa eta muxu handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Koldo**, astelehenean urtetxo bat egingo duzulako. Muxu handi bat anaia Julen eta etxeko gainekoan partez.




• Zorionak, **Nagore!** Etxeko printzesak 3 urte! Belarririk hiru tirakada potolo, etxekoan partez.



• Zorionak, **Kepa**, mutil handi, martitzenian 5 urte bete zenduazenetan! Muxu pilla bat, familiakuen partez.



• Familiako guztien, eta bereziki, lehengusu Intza, Malen eta Haritzen partez, zorionak eta muxu handi bat, **artista**, zure laugarren urtebetetzean.



• Zorionak, **amama eta gure printzesa maitea**, Asteartean zure urtebetetzea izango da. Muxu handi bat, familiako guztien partez.

## Zoriondu ezazu **BARRENEN!**

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:  
**4'50€**

Argazki bikoitza:  
**7€**

Hirukoitza:  
**9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:  
**15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:  
**3'50€**

Argazki bikoitza:  
**6€**

Hirukoitza:  
**8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:  
**12€**

Argazkiak **eguzten eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARREneko bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

**Makina erremintan dihardun DOIMAK S.A. enpresa elgoibartarrak honako lan postuak betetzeko deialdia luzatzen du:**

**Doimak**

- LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUEN ERREKTIKATZAILEA.
- LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUEN MUNTATZAILEAK. (INGELESEKO ETA EUSKARAZKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)

Interesdunak bidali zuen kurrikulumak [adminis@doimak.es](mailto:adminis@doimak.es) helbide elektronikora edo 943 740 988 (Tomas) telefonora deitu

## 21 barixakua

### Informazioa

17:00 Gure Esku Dago

Ekimenari buruzko informazioa emango dute, Kalegoen plazan.

### Musika

18:30 Kale kantariak

Entsegua egingo dute Kultur Etxeko sotoan, azken zapatuko ferian egingo duten kalejira prestatzeko.

### Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, DJ Amsiaren kontzertua izango da, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera: 3 euro.

## 22 zapatua

### Gure Esku Dago

13:00 Argazkia

Gure Esku Dago ekimenarekin bat egiten duten herritarren argazkia. Kalegoen plazan.

## 23 domeka

### Musika

12:30 Kontzertua

Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian. Patxillori egingo diote omenaldia.

## 24 astelehena

### Artea

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, *Kristautasuna-Mendebaldeko forma* tailerra landuko dute. Carmen Agirre izango da hizlaria. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 25 martitzena

### Literatura

18:00 Literatura tailerra

David Herbert Lawrence idazlearen *El amante de Lady Chatterley* liburua aztertuko dute, Consuelo Carrererekin. Udal Liburutegian.

## 26 eguztena

### Dantza

19:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleen dantza jaialdia. Herriko Antzokian.



## 27 eguzena

### Dantza

19:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleen dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

Asteburu honetan wii maratoia: Fifa14. Animatu zaitez!

Martxoaren 24an hasiko dira Aste Santuko ekintzetarako izenemateak. Informazio gehiago ludotekan.

### BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
21 Etxeberria 22 Fernandez Goizez: Etxeberria 23 Fernandez 24 Yudego 25 Zabaleta 26 Barrenetxea 27 Ibañez	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

### ZINEA

#### «La gran estafa americana»

21, barixakua: 22:15

22, zapatua: 19:00/22:15\* (VOS)

23, domeka: 19:00

24, astelehena: 21:30

#### «Jelly T, Tarzan eskasa»

23, domeka: 16:30

#### «Todas las mujeres» (Ongarri zinekluba)

27, eguzena: 21:30





**herritarrekin**  
martxan en marcha



 *Gipuzkoa*  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



**PARTE HARTU  
ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela  
kargatzeko 20 euroko bonoak  
zotz egingo ditugu.

 *Gipuzkoa*  
BERRIA

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu.

Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

**Apirilaren 10ean, 18:00etan, Elgoibarko Kultur Etxean.**

U D A B E R R I F E S T A

M A R T X O A K 2 2 , z a p a t u a

H H 2 - L H 2

1 1 : 3 0 e a n

k a l e g o e n P l a z a n



ELGOIBARKO UDALA